

Ordizian, 2012ko urtarrilaren 26an, UDALBATZA elkartu da UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN OHIKO BILERA egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Edurne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	PNV taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	PNV taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	PNV taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

Bittor Bolinaga Alzelai jauna	PNV taldea
-------------------------------	------------

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi jauna

ITZULTZAILEA:

Maialen Moreno Zubeldia andrea

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

1.- 2011ko azaroaren 24an egindako ohiko bileraren akta onartzea.	3.orr.
2.-Abenduaren 19ko ohiko bilkurako akta onartzea.	3.orr.
3.- BILDUK aurkeztutako proposamena KUTXABANKen ordezkari buruz.	4.orr.
4.- BILDUK egindako proposamena KUTXAK jendaurreko arretaren ordutegia murrizteari buruz.	7.orr.
5.- BILDUK EGIN DEZAGUN BIDEAREN eskariz, udalerrian banderatxoa jartzeari buruz aurkeztutako proposamen politikoa.	8.orr.
6.- Gipuzkoa Batzar Nagusiekin bat egitea, lapurtutako haurren auziaren inguruan	10.orr.
7.- Ipar-Hego Kooperazioari laguntzak. 2011ko deialdia.	13.orr.
8.- EBPNren Plan Estrategikoa urtebete luzatzea.	15.orr.
9.- KUTXAn ordezkarien inguruan taldekatze akordioa.	16.orr.
10.- Udal Planeamenduaren Aholkularitza Batzordearen Araudi aldaketa.	17.orr.
11.- EIOZaren hobaria. Lokal komertzialak.	18.orr.
12.- Ordizia Lantzen S.A.-k LA CAIXArekin egin beharreko kreditu-konturako abala.	20.orr.
13.- Bizilagun bat babestutako pisu batean sartzeko abala.	21.orr.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19.10ak.

AMAIERA ORDUA: 20.15ak.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2011ko azaroaren 24an egindako ohiko bileraren akta onartzea.

Proposamena

2011ko azaroaren 24an ohiko deialdian egindako Batzordearen akta-zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, EAJ/PNV 4,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du:

2.-2011ko abenduaren 19ko ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2011ko abenduaren 19an ohiko deialdian egin zen bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, EAJ/PNV 4,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

3.- BILDUk aurkeztutako proposamena KUTXABANKen ordezkariari buruz.

Proposamena

Gipuzkoako Kutxak Administrazio Kontseiluan hartutako akordioak direla eta (akordioan Kutxabank erakunderako ordezkari berria erabaki zen, eta, gainera Gipuzkoako Kutxak, eta beraz, gipuzkoar guztiok dugun ordezkari murriztu egin da) Batzarkide Talde -edo Udal talde- honek MOZIO hau aurkeztu du, eztabaidatu eta onartu dadin:

1-Administrazio Kontseilua bi talde politikok bakarrik osatzeko erabakiaren aurka agertu, gainontzeko talde politikoak baztertzeko baititu, eta, ondorioz, erabaki hori hartu dutenek Kutxabank Erakunde berriaren kontrol osoa eta baztergarria izango baitute.

2- Eskatzen dugu Kutxabank sortzeko lortu zen adostasuna mantentzea, hiru Kutxen Batzarrean babes zabala jaso zuena, hartara, euskal gizartearen eta bere erakundearen errealitatearen ordezkari plurala, adierazgarria eta proportzionala izan dezan, Kutxabank gizarte honen eta Herrialde honen zerbitzura egoteko.

3-Kutxak Kutxabank erakunde berriaren ordezkariaren errespetua eskatu, joan den irailean Kutxen Batzordeetan hitzartuta eta onartuta zegoen parametroetan, eta, beraz, ez dadila ordezkariak murriztea onartu, bai Kutxari, bai Gipuzkoa guztiari eta bere herritarrei kalte egiten dielako.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean BILDU taldearen mozioa sartzea onartu zela azaldu du, KUTXABANKen ordezkariari buruzkoa, baina kendu egingo duela esan du Gipuzkoako Batzar Nagusietan BILDUREn eta Euskal Sozialisten artean adostutako eta onartutako mozioarekin bat egitea proposatzeko.

Mozio horrekin bat egitea proposatu du beraz.

Bertaratutako guztiei horren kopia eman zaie eta Alkate jaunak irakurri egin du:

"1.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek Kutxabank –Kutxa, BBK eta Vital Kutxa bateratzeetik sortutako erakundea- babesten dute, integraziorako adostu ziren irizpideak mantentzen dituen bitartean, funtzio soziala izaten jarrai dezan, erakunde hori ekonomia bultzatzeko eta Herri honen interes ekonomikoak eta herritarren ongizatea defendatzeko tresna garrantzitsua baita.

2.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek Kutxabank-en Administrazio Kontseiluaren osaketaren aurka agertu dira, bi indar politikoren interes partidistaren irizpidetan oinarritu baita, eta ondorioz, bi indar horien kontrol osopean eratu da Administrazio Kontseilua eta gizartearen eta euskal instituzioen ordezkari plurala baztertu egin da.

Hori dela eta, aurretik aipatutako Administrazio Kontseiluaren aurka daudela adierazten dute, izendapenak egitean elkartutako finantza erakunde bakoitzaren pisua ez delako errespetatu, eta ez delako Euskadiren ordezkari instituzionalaren eta sozialaren aniztasuna islatu.

3.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskatzen dute gaur egungo Kutxabank-en kudeatzaileek Kutxa erakunde sortzailerako hitzartutako ordezkari errespetatu dezaten, hori bateratutako hiru Kutxen Batzordeetako bakoitzean onartutako Integrazio Kontratuan hitzartutakoaren arabera. Eta ondorioz, Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsona kopurua txikitzeko erabakia berriz aztertu eta ezeztatzea ere eskatzen dute, hartara, ez Kutxa erakunde sortzailearen interesak, eta ezta Gipuzkoako herritarrak ere kaltetu ez daitezela.

4.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek beharrezkoa ikusten dute Kutxak arautuko dituen euskal legedia, erakundeetan aukeratutako ordezkari guztiek adostu eta hitzartu beharko dutena, batez ere Kutxen erakunde sortzaileak osatzen dituzten horiekin, eta errespetua adierazi beharko du Herri honetan erakundearen eta gizartearen pluraltasunarekin, eta Gobernamendu egokiaren arauak jarraiki, zuzendaritza organoak osatzen dituzten pertsonen kudeaketan irizpideak eta profesionaltasuna eta bikaintasuna errespetatu.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Santamaria jna.

Bere taldearen izenean testu bat irakurriko du, BILDUK eta PSOEek aurkeztutako mozioaren aurkako botoaren arrazoiak emateko.

"Euskadiko hiru Kutxek Kutxa Banken Administrazio Kontseilua 15 kideekin osatzea erabaki zuten aurreko abenduaren 30ean. Onartutako arauak betez, Kutxa Bank abiaraztea zen egin beharrezkoa, haren zuzendaritza eta erabakiak hartu beharko zituen kontseilua ahalik eta adostasunik zabalenez izendatzea izan zen xedea. Eta oinarria sendo kontserbatzeko asmoaz hastea, alegia, Euskal Herriko eta Espainiako

Estatuko Bankuen artean, kaudimen eta efizientzia mailarik gorenetakoa mantentzea.

Azken urte hauetan, finantza arloan aldaketa sakonak gertatu dira eta gertatzen ari dira. Merkatu maioristetan dirua lortzeko gero eta arazo gehiago izaten ari da. Kutxek, kutxa izateagatik, errekurtsio propioak handitzeko arazoak dituzte. Negozio arruntean margenak gero eta txikiagoak dira eta beraz, zenbat eta margen eskasagoa orduan eta errentagarritasun urriagoa. Aldiz, gero eta zorrotzagoak dira kutxek bete beharreko arauak, eta bai Europar Batasunetik datozen irizpideak bai Espainiako Bankuarenak norabide bera ezartzen diete kutxei: beren finantza-jarduera bankuen ereduetan oinarritu arazten zaie.

Bestetik, gure erakundeen aspaldiko borondatea izan da Kutxak batzea, Gizarte Lana bermatu eta indartzeko, eta gure garapen ekonomiko eta sozialarentzat lagungarriagoa izateko.

Horrela, nahiz eta beste bi aldietan huts egin zuen Kutxen bategiteak alderdi politikoek alderdikieriaz jokatu zutelako, Kutxen batzarretako taldeen gehiengo zabal eta nabarmenaz atera zen aurrera bategitea aurreko 2011ko Irailean.

Erabakitakoa betez, 2012ko urtarrilaren 1ean martxan jarri beharra zegoen Kutxa Bank bere Administrazio Kontseilua izendatuz eta izendapena, Kutxa Banken gehiengo zabal horrek erabakitako arauen arabera egin zen. Hala eta guztiz ere, Kutxa Bankek etorkizun laburrean hartu behar dituen erabakiak kontutan izanik eta erakunde berria indartzeko, komeni da Kutxak osatzen dituzten taldeen alderdikeriak alde batera utzi eta elkarrizketei berrekitea.

Guzti hori kontutan izanik, hau proposatzen dugu:

- 1. bat egitea Kutxa Banken Administrazio Kontseiluaren izendapenarekin, Kutxa Bank egitasmoa gauzatzeko ezinbesteko tresna delarik.*
- 2. Kutxa Banken Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsonen profesionaltasuna azpimarratu bereziki, profesionaltasun hori izango baita, orain arte bezala, Kutxa Banken kaudimen- eta errentagarritasun-maila bermatuko dituen.*
- 3. Kutxa Banken Administrazio Kontseilutik kanpo kokatu diren taldeei dei egin, alderdikeriak baztertu eta Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialerako berebiziko garrantzia duen egitasmoa bil daitezen."*

Alkate jn.

Erantzun dio neurri handi batean ados dagoela, baina ez zaiola ondo iruditzen zenbateko presarekin jokatu den, eta presa arrazoituz, "espiritua" alde batera uztea ez zaio ondo iruditzen. PSE-EE (PSOE) eta beste alderdi batzuk kanpoan utzi dira.

Santamaria jna.

Adierazi du PSOEk baduela kargu bat.

Alkate jn.

Besterik ez dela falta erantzun dio, eta aipatutako kargua behartutakoa dela eta Araban.

Dubreuil jn.

Adierazi du ez dela eztabaida horretan sartuko, hori Batzar Nagusietan egin baita.

Uste du EAJren asmoak asmoak ez direla txarrak, bai ekintzak direnak direla, eta ondorioz, Batzar Nagusietan bere alderdiak eta BILDUK adostutako eta onartutako mozioaren aldeko bozkatuko duela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 4 (EAJ/PNV 4)

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- BILDUK egindako proposamena KUTXAK jendaurreko arretaren ordutegia murrizteari buruz.

Proposamena

Kutxa-ko (Kutxabank) bulegoetan bezeroei arreta murriztea proposatu den Goierri-Tolosaldeko Udaletarako, beste puntu bat gehitu behar dugu, eta hau da proposamena:

Bulegoetako irekiera ordutegia murrizteari dagokionez, eta, beraz, Kutxako (Kutxabank) bulegoetan bezeroei arreta murrizteari dagokionez, hartutako neurriaren aurka egin eta salatu egin nahi dugu, herritarrei dakarkien kalte larriagatik. Bulegoa irekita mantendu dadila eskatzen dugu, orain arte bezala, inolako murrizketarik gabe.

Udal honek hartutako erabakiak bai Erakundearen Zuzendaritzari, bai bulegoen zuzendaritzari eta gure udalerriko bizilagunei jakinaraziko zaizkie.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 4)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- BILDUK Egin Dezagun Bidearen eskariz, udalerrian banderatxoa jartzeari buruz aurkeztutako proposamen politikoa.

Intsausti andrea

Aurkeztutako proposamena irakurri du

Proposamena

Gaur, errealitate objektiboa da Euskal Herrian bizi dugun gatazka politikoaren ondorioz preso dauden euskal herritarrei erabaki politikoek eragindako neurri bereziak aplikatzen zaizkiela kartzela politikan: epaitegi bereziek epaitzen dituzte, zigor neurri bereziak ezartzen zaizkie, kartzela zigorrak luzatzen zaizkie legeak berak esandakotik haratago, Euskal Herriitik urrunduta eta erregimen bereziak aplikatzen zaizkie...

Gaur, errealitate objektiboa da Euskal Herrian egoera politikoa aldatzen ari dela. Modu jakin batera edo bestera ulertu Euskal Herrian bizi dugun gatazka politikoa, gaur Euskal Herriko eragile politiko eta sozial guztiek onartzen dute funtsezko aldaketak ari direla ematen eta aukera berriak ari direla zabaltzen Euskal Herrian normalizazio politikoa eman dadin.

Gaur, errealitate objektiboa da ETA erakunde armatuaren jardura eten dela, baina oraindik ez dela lortu normalizazio politiko eta sozialik: ez dira euskal herritar guztion eskubideak errespetatzen; ez dira eskubide zibil eta politiko guztiak errespetatzen; ez da behar bezalako saiakerarik egin gatazka eragindako modu bateko zein besteko biktimen mina aitortu eta erreparazioan eragiteko...

Gaur, errealitate objektiboa da euskal eragile politiko eta sozial gehienek, eta baita herritarren gehiengo oso zabalak ere, pentsatzen duela posible dela bestelako kartzela politika. Are gehiago, posible ez ezik, beharrezkoa ere badela, batetik, gatazkaren ondorioak humanizatzeko, bestetik, normalizazio prozesua sendotzeko.

Gaur, gainera, Ordiziako Udalean Ordezkaritza duten alderdiek azken aldian egindako adierazpen eta eskaerek, erakusten dute alderdi horiek bat egiten dutela espetxe politika aldatzeko eta euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskubide eta eskaerarekin.

Gaur, amets egiten dugu bihar oso bestelako egoera bat bizitzearekin. Gatazka politikotik bortxa adierazpen guztiak desagertzearekin, euskal herritar guztien eskubide guztiak errespetatzearekin, bizikidetzara normalizatuarekin... Amets hori errealitate bihurtzeko, ordea, hainbat urrats sendo eta ausart eman beharko dira. Herritarrek, eragile sozialek, alderdi politikoek, gatazkaren subjektu guztiek, erakundeek... eman beharko dituzte urratsak. Banaka harturik, segur aski ez nahikoak. Baina denak ezinbestekoak, eta guztiak baturik, konponbide globala ekarriko dutenak.

Horregatik guztiagatik, gaur, Ordiziako Udalari eskaera xume eta sinple hau egiten diogu:

Bat egin dezala euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskaerarekin, eta eskaera horren lekuko, jar dezala Udaletxeko balkoian eskaera hori egiten duen zapi edo banderola.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaltu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Santamaria jna.

Azaldu du bere taldeak abstentzioa bozkatuko duela, ez presoen eskubideen alde ez dagoelako, baizik eta ulertzen duelako une honetan, bakea eta normalizazioa lortzeko beharrezkoa dela bikiimen egoerari buruz hitz egitea.

Alkate jn.

Bere botoa azaldu du. Ekintzetara pasatzeko une dela uste du. Une berezia bizitzen ari da eta onartu egin behar da, eta Erakundetik ulertzen du euskal presoen eskubideen alde hitz egin behar duela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 1 (PSE-EE (PSOE))

Abstentzioa: 4 (EAJ/PNV)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

Maiza and.

Gipuzkoako Batzar Nagusietan onartutako adierazpen instituzionalaren testua irakurri du.

6.- Gipuzkoa Batzar Nagusiekin bat egitea, lapurtutako haurren auziaren inguruan.

Proposamena

50eko eta 90eko hamarkaden artean, Euskal Autonomia Erkidegoan, administrazio alorrean irregulartasunak izan dira, eta pentsarazten digute haur jaioberrien edo adopzio irregularren inguruko kasuak izan direla.

Kaltetu gehien duen lurraldea Gipuzkoa dela kontuan izanik, eta ustezko auzi horrek lurraldeko 20 ospitale sar litzakeela, Gipuzkoako Batzar Nagusiek Berdintasun, Giza Eskubide eta Memoria Historikoaren Politiken Batzordearen bidez kasu honetan kaltetutako zenbait elkarte gonbidatu zituzten, beren arrazoiak eta kezak azal zituzten batzordearen aurrean, joan den 2011ko irailaren 26an.

Bertan, SOS Lapurtutako haurrak Euskadi eta ANADIR elkarteetako ordezkariak adierazpenak egin eta zenbait dokumentazio banatu zuten, gauzatzen ari diren zenbait kasuren inguruko ikerketen egoerari buruz eta erakunde horren parte-hartzea eskatu zuten.

Lapurtutako haurren ustezko auzi horren inguruan izandako azken gertakariak direla eta –esaterako, hilotzak lurpetik ateratzea eta Gipuzkoako ospitale eta kliniketan egindako ikerketak- Gipuzkoako Batzar Nagusiek honako hau egin dute:

GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, USTEZKO HAUR LAPURTUEN AUZIAN LAGUNTZA ETA ELKARLAN ESKARIARI DAGOKIONA.

Erakunde-komunikatu honen bidez, Gipuzkoako Batzar Nagusiek elkartasun osoa adierazten diete jaioberrien lapurreten eta adopzio ilegalen kasuekin kaltetutako familiei.

Kaltetuek aldarrikatzen duten egia jakiteko eskubideari dagokionez, alegia, senitartekoek desagertutakoak non dauden jakiteko eskubideari dagokionez, Gipuzkoako Batzar Nagusiek uste dute agintariak eskubide hori bermatzeko betebeharrak politikoa dutela, zehazki, eskumena duten tokiko, lurraldeko, erkidegoko nahiz estatuko agintariak.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek euskal erakunde guztiei eskatzen diete, eta bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari, behar diren eta haien esku dauden neurri guztiak hartzeko aipatutako elkarteek eskatzen duten egia eskubidea bermatzeko.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diote, beste neurri batzuen artean, kaltetuentsako aholkularitza-zerbitzu bat sortzeko.

Berdintasun Politiken, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Batzordean hasi dituzten lanekin jarraitzeko konpromisoa hartzen dute Gipuzkoako Batzar Nagusiek, harik eta egitateak argitu arte.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jn.

Adierazpeneko testuarekin ados dagoela esan du, baina bere ustez bukaeran bi paragrafo gehiago jarrita amaitu beharko luke.

“1.- Ordiziako Udalak bat egin du Gipuzkoako Batzar Nagusien erakunde-adierazpenarekin, kaltetutako zenbait erakundek adierazitako lapurtutako haurren auzian laguntzeko eta elkarlanean aritzeko laguntza eskaerari erantzunez, eta behar diren eta eskura dauden neurriak hartzeko konpromisoa hartu du, aurretik aipatutako elkarteek eskatzen duten egia eskubidea bermatzeko.

2.- Ordiziako Udalak Ordiziako biztanleei elkarlan hitzarmen honen inguruan informazioa emango die, bere komunikabideen eta tokiko prentsaren bitartez”.

Horrela idatzita geratu da, transkribatzen den moduan:

Proposamena

50eko eta 90eko hamarkaden artean, Euskal Autonomia Erkidegoan, administrazio alorrean irregulartasunak izan dira, eta pentsarazten digute haur jaioberrien edo adopzio irregularren inguruko kasuak izan direla.

Kaltetu gehien duen lurraldea Gipuzkoa dela kontuan izanik, eta ustezko auzi horrek lurraldeko 20 ospitale sar litzakeela, Gipuzkoako Batzar Nagusiek Berdintasun, Giza Eskubide eta Memoria Historikoaren Politiken Batzordearen bidez kasu honetan kaltetutako zenbait elkarte gonbidatu zituzten, beren arrazoiak eta kezak azal zituzten batzordearen aurrean, joan den 2011ko irailaren 26an.

Bertan, SOS Lapurtutako haurrak Euskadi eta ANADIR elkarteetako ordezkariak adierazpenak egin eta zenbait dokumentazio banatu zuten, gauzatzen ari diren zenbait kasuren inguruko ikerketen egoerari buruz eta erakunde horren parte-hartzea eskatu zuten.

Lapurtutako haurren ustezko auzi horren inguruan izandako azken gertakariak direla eta –esaterako, hilotzak lurpetik ateratzea eta Gipuzkoako ospitale eta kliniketan egindako ikerketak- Gipuzkoako Batzar Nagusiek honako hau egin dute:

GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, USTEZKO HAUR LAPURTUEN AUZIAN LAGUNTZA ETA ELKARLAN ESKARIARI DAGOKIONA.

Erakunde-komunikatu honen bidez, Gipuzkoako Batzar Nagusiek elkartasun osoa adierazten diete jaioberrien lapurreten eta adopzio ilegalen kasuekin kaltetutako familiei.

Kaltetuek aldarrikatzen duten egia jakiteko eskubideari dagokionez, alegia, senitartekoek desagertutakoak non dauden jakiteko eskubideari dagokionez, Gipuzkoako Batzar Nagusiek uste dute agintariek eskubide hori bermatzeko betebeharrak politikoa dutela, zehazki, eskumena duten tokiko, lurraldeko, erkidegoko nahiz estatuko agintariek.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek euskal erakunde guztiei eskatzen diete, eta bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari, behar diren eta haien esku dauden neurri guztiak hartzeko aipatutako elkarteek eskatzen duten egia eskubidea bermatzeko.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diote, beste neurri batzuen artean, kaltetuentsako aholkularitza-zerbitzu bat sortzeko.

Berdintasun Politiken, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Batzordean hasi dituzten lanekin jarraitzeko konpromisoa hartzen dute Gipuzkoako Batzar Nagusiek, harik eta egitateak argitu arte.

1.- Ordiziako Udalak bat egin du Gipuzkoako Batzar Nagusien erakunde-adierazpenarekin, kaltetutako zenbait erakundek adierazitako lapurtutako haurren auzian laguntzeko eta elkarlanean aritzeko laguntza eskaerari erantzunez, eta behar diren eta eskura dauden neurriak hartzeko konpromisoa hartu du, aurretik aipatutako elkarteek eskatzen duten egia eskubidea bermatzeko.

2.- Ordiziako Udalak Ordiziako biztanleei elkarlan hitzarmen honen inguruan informazioa emango die, bere komunikabideen eta tokiko prentsaren bitartez”.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE) 1, EAJ/PNV 4)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Beraz Alkateak aipatutako aldaketekin proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 7. puntuaren berri eman du:

7.- Ipar-Hego Kooperazioari laguntzak. 2011 deialdia.

Proposamena

Kooperazio proiektuak egiteko gobernu kanpoko erakundeentzako diru-laguntzak arautzen dituen araudia jarraituz, eta 2011 urteko ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren, 19 proiektu aurkeztu dira.

Erabiltzeko moduan dagoen aurrekontu partida **95.000 eurokoa** da.

Hegoak proiektuak aztertu eta gero, eta Gizarte Ongizate, Osasun eta Berdintasun Delegazioan egindako proposamena onartu eta gero eta 2012ko urtarrilaren 18ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeko aldeko irizpenarekin, honako hau proposatu da:

Akordio proiektua:

Ondoren zehazten diren diru-laguntzak onartzea, honako proiektu eta erakundeei banatuko zaiena:

-1- Mugen Gaietik. *"Emprendimientos económicos para la promoción del empleo femenino en Lima Sur"*.

Emandako laguntza: 7.790 euro

-2- Manos Unidas. *"Empoderamiento y promoción de las mujeres Q'eqchiés de 15 comunidades de Chisec para la reducción de la inseguridad alimentaria de sus comunidades - Alta Verapaz, Guatemala"*

Emandako laguntza: 3.955 euro

-3- FISC. *"Generación de instrumentos formativos y de organización comunitaria para el desarrollo socioeconómico de mujeres y jóvenes altamente vulnerables en el barrio de Nueva Vida. Nicaragua"*.

Emandako laguntza: 7.690 euro

-4- Oscar Romero. *"Inclusión educativa de las niñas y niños en edad pre escolar que se encuentran fuera del sistema educativo en el área rural del municipio de Tabuca", EL SALVADOR*

Emandako laguntza: 9.700 euro

-5- Solidaridad Internacional. *"Promoción para el acceso a servicios de saneamiento básico de calidad en cuatro municipios de la Mancomunidad municipal Valle Sur de Cusco" PERU.*

Emandako laguntza: 9.700 euro

-6- Phagma Drolba. *"Mujeres, desarrollo y medioambiente: las comunidades tibetanas más vulnerables en primer plano"*.

Emandako laguntza: 1.400 euro

-7- Taupadak. *"Módulo ganadero para la consolidación de la autonomía indígena del TIPNIS (Territorio Indígena Parque Nacional Isiboro (Sécure))" BOLIVIA.*

Emandako laguntza: 9.700 euro

-8- Serso San Viator. *"Aumentar el porcentaje de niñas y niños escolarizados en Gonaives (Haití)".*
Emandako laguntza: 7.700 euro.

-9- Rokpa. *"Promoción de la Medicina Tradicional Tibetana, completando el círculo: salud accesible y asequible, fortalecimiento comunitario y rescate del ecosistema tibetano. Tibet: Republica Popular China".*
Emandako laguntza: 9.713,92 euro

Erakunde hauei aurkeztutako diru-laguntza eskaerak ukatzea:

1- Fundación Fondo Formación, Proyecto Zirkinka - "Capacitación y Fortalecimiento Organizacional para la Inserción Socio-Laboral de Personas en Situación de Dificultad del Sur de Quito (Ecuador)"

2- Gazteak eta garapena - Jovenes y desarrollo, "Reformas en la Granja Escuela Valdocco, en Sakété, para mejorar la calidad de vida de los niños de la calle". Proyecto Foyer Don Bosco. Porto-Novo (R. du Benín) África sub sahariana.

3- ONG Pausumedia, "Apropiación social de Tecnologías de la Información y las Comunicaciones en mujeres para producción de contenidos con prespectiva de género. Región Maule Chile"

4- Bide Bat (Iniciativa-cultura del trabajo civico y la innovación) "Tanger Proiektua".

5- "LEOK 'K" Musika Kultur Elkarte, "Saemel. Saharako emakumeei elkartasuna".

6- Felix Baltistan Fundazioa (FBF), "Programa de Fortalecimiento Local y Desarrollo Organizacional (III. Fasea) PROFOBO III. Pakistan".

7- Asamblea de Cooperación Por la Paz/Bakerako Lankidetzeta Batzarrea y ASACASE, "Mejora de la situación de seguridad alimentaria de los 2,488 habitantes (1,272 mujeres y 1,216 hombres) de Sowanabe y Bély Gonadi, Departamento de Podor, Región de Saint Louis."

8- Fundación Mundubat. "Fortalecimiento en el sistema de salud de la Wilaya de Ausserd, Campamentos de Población Refugiada Saharai en Tindouf, Argelia".

9- Activ@s por un Mundo Solildario AMS-MSH Mundu Solidarioa Helburu. "Integración y Accesibilidad de Jóvenes con capacidades diferentes en Diriamba. Nikaragua".

10- Asociación para la Cooperación y Desarrollo de Fisioterapia Pediátrica Tximelagua. Nikaragua. "Katuka 2: Fisioterapia Pediatrikoa Tuma-La Dalian. Matagalpako probintzia. Nikaragua".

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Maiza and.

Aurkeztutako proiektuen ebaluazio-prozedura nola egin den azaldu du. HEGOA enpresa arduratu da balorazio hori egiteaz.

Gainera, HEGOAK diruz lagundutako proiektuen jarraipena egingo du.

19 proiektu aurkeztu dira, eta horietatik 10 kanpoan geratu dira, beraz, guztira diru-laguntza jasoko duten proiektuak 9 dira. Horiek zerrendatuko ditu jarraian.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 4)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.- EBPNren Plan Estrategikoa urtebete luzatzea.

Proposamena

2008ko urtarrilaren 23ko osoko bilkuran, Euskaren Erabilera Sustatzeko Plan Orokorraren 2008/2011 Plan Estrategikoa onartu zen (EBPN).

Une hauetan, Eusko Jaurlaritza Euskararen Aholku Batzordearekin batera, Euskararen Erabilera normalizatzeke Plan Orokorra berraztertzen ari da, XXI. mendeari begira dituen helburuekin.

Hori dela eta, Udalbatza Plan Estrategiko berria onartzeko guztiz gai den arren, komenigarria dela uste da Plana 2012rako luzatzea.

2011ko abenduaren 18ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin honakoa onartzea proposatu da:

AKORDIO PROIEKTUA

- Urtebetez luzatzea, hau da, 2012rako, 2008/2011 urteetarako onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa.
- Akordio hau Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika Zuzendaritzari jakinaraztea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Iturrioz jna.

Imanol Iturrioz jaunak azaldu du zertan datzan proposamena, 2008/2011 urterako onartutako Plan Estrategikoa urtebetez luzatzea ekarriko duena.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 4)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- KUTXAn ordezkarien inguruan taldekatze akordioa.

Proposamena

Tokiko Gobernuek Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxa eta Monte de Piedad eta Donostiako Aurrezki Kutxako gobernu-taldeak izendatzeko Araudiaren 20. artikuluekin bat etorritik.

Era berean, aipatutako erakundean ordezkaritza izateko udalerrriak elkartzeko eskubidearekin bat etorritik, Udal hau taldekatze-eskubideaz baliatuko da.

2012ko urtarrilaren 18ko Osoko Bilkurarako gaiak aztertzen dituen Batzordearen aldeko irizpenarekin.

AKORDIO PROIEKTUA

Ordiziako Udalak TALDEA OSATZEA adostu du Hernani, Oiartzun, Lezo, Astigarraga, Billabona, Lizartza, Mendaro, Usurbil, Mutriku, Zaldibia, Ataun, Ibarra eta Legorretako Udalerriekin.

Kutxari akordio hau jakinarazi 2012ko urtarrilaren 30a baino lehen.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Taldekatze-akordioa azaldu du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 5 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 4)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

10.- Udal Planeamenduaren Aholkularitza Batzordearen Araudi aldaketa.

Alkate jn.

Azaldu du puntua mahai gainean uztea proposatu dela, Alderdi Sozialistatik Araudi horri ekarpenak edo proposamenak aurkeztu zaizkiolako.

Gainera, alkateak onartu du proposamena talde politikoei berandu bidali zaiela, eta hori dela eta, ekarpen horiek lasaitasun handiagoz aztertzea begi onez ikusi du.

Dubreuil jn.

Iruditzen zaio alderdi politikoek ordezkaritza handiagoa izatea aztertu beharko litzatekeela, bai Udalean ordezkaritza dutenek, bai ez dutenek. Gainera, Araudiari badagozkio, aurkezten diren proposamenak Aholku Batzordean aipatu beharko liratekeela.

Proposatutako ordezkari kopurua 5ekoa da, baina alderdi gehiago daude.

Bozketa egingo da, puntua mahai gainean jartzeko.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 4)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena atzeratzea onartu du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

11.- EIOZaren hobia: lokal komertzialak.

Proposamena

Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zergak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren berri eman da, bere 8-2. artikuluan "interes bereziko edo udal erabilerakoak" diren obra, instalazio edo eraikuntzetan kuotaren %95 arteko hobia finkatzen du, horrela izendatzeko arrazoiak baldin badaude, enplegu sustapenak, egoera sozialak, kultur egoerak edo egoera historiko artistikoak direla medio.

Jarraian adierazten diren dendek hobari hori eskatu dute.

1.- Arantxa ile-apaindegia.	6.- Amaia ile-apaindegia.
2.- Suquia Hogar S.L.	7.- Maite ile-apaindegia.
3.- Agnes Podología.	8.- Bar Alcayaga.
4.- Centro de alimentación ecológica.	9.- Kiko-enea taberna.
5.- Mujika odolkiak	10.- Galdeano ferretería.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zergaren uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauaren 5.1.a) artikulua arabera, Tokiko Zerga Sistema berritzeko martxoaren 19ko 4/2003 Foru Arauak aldatuta, Osoko Bilkurari dagokio hobia aplikatzeko obren interes edo erabilera publikoa izendatzea.

2012ko urtarrilaren 19ko Plenorako Gaien Batzordeak aldeko irizpena eman zion eskatutako hobariari, honako baldintzak ematen direla-eta:

2010eko martxoko Gobernu Batzordeak, Krisiarena urkako Planaren baitan hartu beharreko neurrien baitan, EIOZan % 95 arteko hobia egitea adostu zuen, denda berriak ezartzeko lanetarako, edo jadanik

badiren dendak berrizatzeko, enplegua bultzatzeko neurri gisa, merkataritza-alorrari ere zuzenki eragiten dion une hauetan.

Era berean, % 95, % 75 eta % 50eko hobariak egingo dira, sektore berriaren ezarpena denda berria irekitzeko baldin bada, edo dagoeneko baden sektore batean denda irekitzeko baldin bada.

Hori ikusita, honako hau proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

Udal interes edo erabilera bereziko izendatzea denda hauetan egin beharreko lanak:

1.- Arantxa ile-apaindegia.: 50%	6.- Amaia ile-apaindegia. 75%
2.- Suquia Hogar S.L.: 50%	7.- Maite ile-apaindegia. 75%
3.- Agnes Podología. 75%	8.- Bar Alcayaga.75%
4.- Centro de alimentación ecológica. 95%	9.- Kiko-enea taberna.50%
5.- Mujika odolkiak. 50%	10.- Galdeano ferretería. 75%

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Zenbat berrikuntza lanetan edo denda berriak zabaltzeko lanetan EIOZren hobaria egiteko zein irizpide erabili den azaldu du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (BILDU 6, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 4)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

BILDU taldeko Guereñu jn-k ez du botorik eman, gaien interes pertsonala edo familiakoa duelako.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

12.- Ordizia Lantzen S.A.-k La Caixa-rekin egin beharreko kreditu-konturako abala.

Proposamena

Ordizia Lantzen, S.A.-k 3.000.000 euroko kreditu kontua berritu nahi du La Caixa-rekin baldintza hauekin:

- Aldaketa komisioa: % 0,25
- Interes tipo berria: Euriborra 3 hilabetera + %3,50 hiru hilabetero berraztertu daitekeena.
- 1.725.707,84ko mantenua epe finkora, etxebizitzaren eskriturak egin arte.
- Epea: urtebete.

La Caixak Udalaren abala eskatzen du eragiketa hori onartzeko.

Gipuzkoako Tokiko Ogasunak Arazten dituen 11/1989 Foru Arauaren 51.2 artikulua ezartzen du, Gipuzkoako udalerriek, korporazioaren alde aurretiko akordioarekin, abalak eman ahal izango dituztela, beren mendeko merkataritza sozietateek egiten dituzten kreditu eragiketak bermatzeko.

AKORDIO PROIEKTUA

3.000.000 euroko kreditu eragiketaren abala egitea, Ordizia Lantzen S.A.-k La Caixa-rekin hitzartu beharrekoa, azalpenen atalean aipatutako baldintzetan.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Osoa.

Alkate jn.

Azaldu du 2012ko urtarrilaren 18ko Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordean gaia aztertu zen arren, ez zela erabaki Osoko Bilkuran sartzea, zenbait gai ez zeudelako argi.

Behin zalantza edo galdera horiek kontu-hartzaileak argitu ondoren, eta gaia presazkoa delako, Alkateak puntu horiek gai-zerrendan sartzea erabaki du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 4)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, Alkate jaunak puntua gai-zerrendan sartuko dela adierazi du.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontu-hartzaile jaunak

Azaldu du kreditu kontuaren baldintzak ez direla oso onak, baina merkatua horrela dagoela une honetan, eta edonola ere, ez dio Udalaren zorpetzeari eragiten, epe motzerako operazioa baita.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 4)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

13.- Bizilagun bat babestutako pisu batean sartzeko abala.

Proposamena

2697 espte. zenbakidun Ordiziako bizilagunak, jatorriz Berastegikoa denak, herri horretako babestutako pisu batean sartu nahi du, eta dagozkion kuotei aurre egiteko beharrezko baliabideak baditu.

Horretarako, Berastegiko Udalak kuota horiek bermatuko dituen abala eskatzen dio Ordiziako Udalari, eta onuradunak ordainduko ez balitu, Ordiziako Udalak ordainduko lituzke.

Ordiziako Udalak hainbat kudeaketa egin ditu andrearen alabekin eta Ordiziako Notaritzarekin eragiketa horretarako kontra-abala lortzeko.

AKORDIO PROIEKTUA

2697 espedientedun andreak erabiliko duen babestutako pisuaren kuotak ordainduko direla abalatzea, Berastegiko Udalaren aurrean.

2697 espedientedun andrearen alabekin kontra-abala egingo dela hitzartzea. Bertan, beren oraingo eta etorkizuneko ondasun guztiekin konpromisoa hartzen dute Ordiziako Udalari ordaintzeko Berastegiko Udalari ordaindu behar izan dizkion kuotak, babestutako etxebizitza okupatzeagatik.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Azaldu du zertan datzan Berastegiko Udalak Ordiziako Udalari eskatutako abala, baina jakinarazi du, aldi berean, Ordiziako Udalak espedientearen titularra den familiarekin adostu duela kontra-abala sinatzea. Horrek ekarriko luke dokumentu baten eskritura publikoa sinatzea, eta andre horren oraingo eta etorkizuneko ondasunekin bermatuko lirateke, Ordiziako Udalak Berastegiko Udalari egin beharko lizkiokeen ordainketak, babestutako pisua gozatzetik eratorritakoak.

Dubreuil jn.

Galdetu du zergatik ez duen Berastegiko Udalak familiaren abala zuzenean onartzen.

Maiza and.

Erantzun dio Ordizian erroldatuta egonik, Udalak berak egin behar diola abala.

Dubreuil jn.

Ez du ulertzen zergatik sartu behar den Udala gai pribatuetan.

Hitzarmena lortzea proposatu da, eta edozein kasutan, gaia Berastegiko Idazkaritzarekin argituko balitz, eta hitzarmen hori erabiltzeko eta babestutako pisuaren onuraduna Berastegiko Udalaren aurrean abalatzeko beharrik ez balego, ez litzateke hitzarmen hori gauzatuko.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 4 (EAJ/PNV)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du, adierazitako baldintzarekin.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

14.- Eskaerak eta galderak

Ez dago.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.